

Bestelako Xedapenak

OGASUN ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

Zk-5455

215/2003 DEKRETUA, irailaren 23koa, «Itelazpi, S.A.» akziokako sozietate publikoa sortu eta bere partaidetzak erosteko EAEko Administrazioari baime-na emateari buruzkoa.

Administrazio publikoak hainbat zerbitzu ahalik ondoen betetzeko beharrezko baliabideak dira komunikazioak, azkartasunez eta eraginkortasunez kudeatzea eskatzen dutenak. EAEko Administrazioak kokaleku zenbait ditu lurralde guztian banatuta, non telekomunikazio azpiegitura garrantzitsuak baitaude. Telekomunikazioon helburua da garraio zerbitzua eskaintzea eta telebista eta irrati kate publiko zein pribatu jakin batzuen —eta Herrizaingo Sailari lotutako beste batzuen— seinaleak hedatzea.

Ekipamendu analogikoaren edo digitalaren eraberrikuntzan uneoro inbertsioak egiten egon beharrak, garatu beharreko eginkizunean giza-baliabide eta baliabide tekniko zehatzak eta egokiak erabili beharrak, eta kokalekuek eta beraien azpiegiturak duten garrantzi estrategikoak, sozietate publikoa sortzea dakarte. Sozietate horrek bateragarriak egin beharko ditu EAEn beharritan tratamendua eta berorrek burutu ditzen eragiketak zuzenbide pribatuko arauetara lotu beharritan abantaila, betiere —legeak esaten duen moduan— kontrol publikoko arauetara atxikiz. Horretaz gain, irrati bidez telekomunikazio azpiegituren eta horiek oinarri dituzten kokalekuen kudeaketa bateraturako tresna egokia izatea ere lortu nahi da, non ekimen pribatuak ere parte har baitezake epe ertainera edo luzera.

EAEn eskumenen jardun-eremuari dagozkion obligazioak betetzeko sortuko da sozietatea, eta sektorearen gidalerro diren indarreango arauetan ezarritako esparruaren barruan garatuko du bere jardura. Sortu nahi den sozietate merkantilaren ezaugarriak aintzat hartuz, sozietateei buruzko lege orokorreaz gain beste zenbait xedapen ere aplikatuko zaizkio sortuko den sozietateari.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y ADMINISTRACIÓN PÚBLICA

Nº-5455

DECRETO 215/2003, de 23 de septiembre, sobre autorización a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para la creación y adquisición de participaciones en la Sociedad Anónima Pública «Itelazpi, S.A.».

Para la correcta prestación de determinados servicios por la Administración Pública las comunicaciones constituyen un instrumento esencial que requiere una gestión que debe ser ágil y operativa. En este ámbito, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi dispone en la actualidad de una serie de emplazamientos repartidos por todo su territorio, donde se asientan unas importantes infraestructuras de telecomunicaciones destinadas a prestar el servicio portador del transporte y difusión de señales de radio y televisión de diversas cadenas de televisión y radio, tanto públicas como privadas, así como aquellas otras vinculadas al Departamento de Interior.

La necesidad de realizar un esfuerzo inversor consistente de renovación de equipamiento tanto analógico como digital, la necesidad, también, de dedicar unos medios humanos y técnicos precisos y adecuados a la función a desarrollar, así como, la importancia estratégica de los emplazamientos y la infraestructura en ellos contenida, aconsejan la constitución de una Sociedad pública, que compatibilice el tratamiento de las necesidades de la Administración de la Comunidad Autónoma con la ventaja de la sujeción de sus operaciones a la reglas del derecho privado, sin perjuicio de su sometimiento a control público, en los términos establecidos en la ley y que, además, sea un instrumento adecuado para la gestión unificada de las infraestructuras de telecomunicaciones vía radio así como de los diversos emplazamientos en los que se asientan las mismas, y en la que a medio o largo plazo pudiera participar la iniciativa privada.

La Sociedad se constituye para el cumplimiento de las obligaciones que se derivan del ámbito competencial de actuación de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y desarrollará su actividad en el marco establecido por la normativa vigente que disciplina el sector, ahora bien, dadas las características propias de la sociedad mercantil a crear son de aplicación a la misma, además de la legislación general societaria, diversos disposiciones específicas.

Ildo horretatik, maiatzaren 17ko 1/1988 Legegintza Dekretuko 19. artikuluan xedatutakoaren araber, honako hauek jotzen dira sozietate publiko legetxe: EAEko Administrazioaren sozietate merkantilak eta EAEko Administrazioaren edo bere erakundeen partaidetza horien kapitalean gehiengoa deneko sozietateak. Halaber, Legegintza Dekretu horretako 20. artikulua-ren 1 zenbakiko a) idatz-zatian publikoa den sozietate merkantila sortzea hartzen da sozietate publikoa sortze legetxe. Dekretu horretako 20. artikuluko 3 zenbakian adierazten da ezen, edozein eratako sozietate publikoak sortzeko, EAEko Administrazioak nahitaezkoa izango duela Jaurlaritzaren dekretua.

Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 44. artikulua-ren 1 zenbakian honako hau adierazten da: «Nolanahiko Baltzuak sortarazteko baimena, eta bai Euskadiko Autonomia-Elkarteko Arduralaritza horietako partzuer-zatiak hartzekoa ere, Jaurlaritzak Ekonomia eta Herriogasun-Sailburuaren eta enpresa arduralaritza haren menpeko izango deneko Saileko Sailburuaren bateango saloz emandako Dekretoz egingo da, dirua eta norbanako-jaurgopeko ogasunak eramatea erabaki dezakeela, hioen balioa dena dela.». Hori da, hain zuzen ere, dekretu honen bidez gauzatzen dena.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko irailaren 23an egindako bileran aztertu eta onartu ostean, honako hau

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Akziokako sozietate legetxe eratuko den sozietate publikoa —«Itelazpi» izenekoa— sortzeko baimena ematea EAEko Administrazioari. Eratzera-koan bazkide bakarra izango du: EAEko Administrazioa.

2. artikulua.— Telekomunikazio sistemak eta azpiegiturak kudeatu, ezarri, ustiatu eta mantentzea da sozietatearen helburua, zertarako, eta irrati-telebistako garraio- eta hedapen-zerbitzuak, irrati-komunikazioko eta bideo-komunikazioko zerbitzuak, seinaleak transmititzeko eta konmutatzeko zerbitzuak eta telekomunikazioko gainerako zerbitzuak eskaintzeko.

Espektror irrati-elektrikoko aholkularitza- eta plangintza-zerbitzuei buruzko azterlanak burutzea eta eskaintzea.

Sozietatearen jardura eremuarekin zerikusirik duten enpresen kapitalean parte hartzea, kasu bakoitzera-ko jar daitezzen baldintzetan.

3. artikulua.— Sozietatearen eraketa kapitala milioi eta zortziehun mila (1.800.000) eurokoa da, hogeita hamar mila (30.000) akziotan ordezkaturata, eta akzio bakoitzaren balio izendatua 60 eurokoa izanik. Akzioak

En dicho sentido, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 19 del Decreto Legislativo 1/1988 de 17 de mayo, son Sociedades Públicas las sociedades mercantiles de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, aquéllas en cuyo capital sea mayoritaria la participación de la Administración de la Comunidad Autónoma o de sus Entes Institucionales. De igual modo, el apartado a) del número 1 del artículo 20 del citado Decreto Legislativo señala, como supuesto de creación de una sociedad pública, la creación de una sociedad mercantil con la cualidad de sociedad pública. Así mismo, el número 3 del mismo artículo 20 señala que la creación de sociedades públicas por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco precisará de Decreto de Gobierno.

Por otro lado, el número 1 del artículo 44 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, señala que la creación de sociedades de cualquier clase por la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco será autorizada por Decreto de Gobierno a propuesta conjunta del Consejero de Hacienda y Administración pública y del Consejero del departamento del que la sociedad haya de depender administrativamente, lo cual se lleva a cabo mediante el presente Decreto.

En su virtud, a propuesta de la Consejera de Hacienda y Administración Pública, previa deliberación y aprobación del Gobierno en su sesión celebrada el día 23 de septiembre de 2003,

DISPONGO:

Artículo 1.— Autorizar a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco la creación de una sociedad pública, con forma de sociedad anónima, cuyo único socio en el momento de la constitución será la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que tendrá la denominación de «Itelazpi, S.A.».

Artículo 2.— El objeto de la sociedad será la gestión, implantación, explotación y mantenimiento de sistemas e infraestructuras de telecomunicaciones con el objetivo de prestar servicios de transporte y difusión de señales de radio y televisión, radiocomunicación, video-comunicación, transmisión y conmutación de señales y cualquier otro servicio de telecomunicación.

La realización de estudios y prestación de servicios de asesoramiento y planificación técnica en materia de espectro radioeléctrico.

Participar en el capital de empresas relacionadas con su ámbito de actuación y en las condiciones que en cada caso se determinen.

Artículo 3.— El capital social fundacional será de un millón ochocientos mil (1.800.000,.-) euros, representado por treinta mil (30.000,.-) acciones de sesenta (60,.-) euros de valor nominal cada una. Las acciones se-

izendunak izango dira eta eraketa kapitala EAeko Administrazioak izenpetu eta ordainduko du guztiz.

Sozietatea sortzerakoan EAeko Administrazioak harpidetzen dituen akzioei dagokien balio izendatu guztia ordaintzeko baimena ematen da.

4. artikulua.— EAeko Administrazioari dagozkion bazkide eskubideez Eusko Jaurlaritzaren Kontseilua baliatuko da, bazkide bakarra denaren aldetik Akzionisten Batzar Orokorra osatuko baitu.

5. artikulua.— 1.— «Itelazpi, S.A.» sozietate publikoa Ogasun eta Herri Administrazio Sailari atxikitzen zaio.

2.— Administrazioaren titularitatekoak diren ondasun eta eskubideak jar ditzake EAeko Administrazioak «Itelazpi, S.A.» sozietate publikoaren eskura, bere helburuak bete ditzan. Eskura jartze horrek ez dakar berearekin ondasun eta eskubideok kalifikazio juridikoz edo titularitatez aldatzea; badakar, ordea, sozietate publikoak ondasun eta eskubideok tutelatatu, zaindu, kudeatu eta administratzea. «Itelazpi, S.A.» sozietate publikoari egotz dakizkion ondasun eta eskubideen ustiakuntza Euskadiko Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legeko 55. artikuluan xedatutakotik arautuko da.

6. artikulua.— Ogasun eta Herri Administrazio Sailako Ondare eta Kontratazio zuzendariari eta Administrazio eta Zerbitzu sailburuordeari ahalmena ematen zaie EAeko Administrazioaren izenean parte har dezaten sozietatea sortzeko eskritura publikoa emateko, sozietatearen estatutuak onartzeko eta Administrazio Kontseiluko kargu eta kideen izendapena —izendatu ostean— formalizatzeko ekintzan. Ahalmena ematen zaie, halaber, EAeko Administrazioaren akzioak harpidetzeko, horien zenbatekoari aurre egiteko eta sozietatea sortzeko behar diren agiri publiko eta pribatuak emateko.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko irailaren 23an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

rán nominativas y el capital fundacional será suscrito y desembolsado íntegramente por la Administración de la Comunidad Autónoma de País Vasco.

Se autoriza la realización del desembolso íntegro del nominal correspondiente a las acciones que se suscriben por la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el momento de constituirse la sociedad.

Artículo 4.— Los derechos de socio correspondientes a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco serán ejercitados por el Consejo de Gobierno Vasco, que como socio único, constituirá la Junta General de Accionistas.

Artículo 5.— 1.— La sociedad pública «Itelazpi, S.A.» se adscribe al Departamento de Hacienda y Administración Pública.

2.— La Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi podrá poner a disposición de la sociedad pública «Itelazpi, S.A.», para el cumplimiento de sus fines, bienes o derechos de titularidad de la Administración. La citada puesta a disposición no implicará un cambio en la calificación jurídica ni en la titularidad de los bienes y derechos y conllevará la asunción, por parte de la sociedad pública, de la tutela, guarda, gestión y administración de los bienes y derechos de que se trate. La explotación de los bienes y derechos que se encomienden a la sociedad pública «Itelazpi, S.A.» se regirá por lo dispuesto en el artículo 55 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, sobre Patrimonio de Euskadi.

Artículo 6.— Se faculta al Director de Patrimonio y Contratación y/o al Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Hacienda y Administración Pública para concurrir, en nombre de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, al acto de otorgamiento de la escritura pública de constitución de la sociedad, aprobación de los estatutos sociales y formalización de la designación de los cargos y miembros del Consejo de Administración, una vez hayan sido designados, así como para materializar los desembolsos y aportación necesarios para la suscripción y cobertura del importe de las acciones atribuidas a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y extender cuantos documentos públicos y privados sean precisos para la constitución de la sociedad.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 23 de septiembre de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.